

«Erljioen sakonean ezkutatutako jakinduriaren bila ari naiz»

Joxean Sagastizabal idazlea, 'Andromedan' eleberraren aurkezpen-egunean. **EREIN**

Joxean Sagastizabal Idazlea
'Andromedan' argitaratu du, kristautasunaren gaineko eleberri labur umoretsua

IRAITZ URKULO

Joxean Sagastizabal (Eibar, 1956) da, zalantzarik gabe, egungo euskal literatura-ren idazle apurtzaileenetako bat. Horren erakusgarri da haren liburua berria, 'Andromedan' (Erein), umore ganberroa, kristautasuna eta erotismoa uztartzen dituen eleberri laburra.

Aita Larrañagak eliztarren artean duen arrakastari susmo txarra hartuta, gotzainak Juan apaizgaia bidaltzen du espioi-lanak egitera. Hortik aurrera, istorioak bizi-bizi egiten du aurrera, deabru, exorzismo eta sexu-perturbazioen artean, eromen zoragarri batean murgilduta.

Eta Eliza katolikoaren aurkako kritikaren oinarrian, galdera aztoragarri hau dago: zer gertatutako litzateke infernua betiko ez balitz eta kondenatu guztiak egunen batean Jainkoaren altzora bueltatuko balira?

– Behin baino gehiagotan aipatu duzu euskal literatura tristea dela. Zergatik?

– Neuk esandako horri kontra egitea ez da batere erraza; aipa nitzake, jakina, hainbat autore eta obra ezin tristeagoak. Normala ez dena da ia besterik ez dugula helduentzako lanetan. Puntako obretan inork aurkitzen badu umorezko zerbait, abisa diezadala. Konfinamenduan euskarazko obra dezente irakurri ditut, eta tristurak beti irabazten du 28-0.

– Euskal irakurle tristemeei nolabaiteko kontsolamendua eskaini nahian, 'Andromedan' idatzi duzu, kristautasunaren inguruko umorezko eleberri erotikopornografikoa.

– «Pornografikoa»! Josu, Joseba eta Miren! Erotismorik badu, hori bai. Ni umorezalea naiz, badut kristautasunaren berri eta erotismoa jolas gustagarritzat daukat; liburuan horiek guztiak nahasi ditut. Apaiz jendeak, bere tristetasun gris ilun horretan, niri behintzat katxondeorako aukera perfektua ematen dit.

– Nork esango zuen Eliza katolikoa eta haren ingurukoak halako testu bat idazteko testuin-

guru ezin hobea izango zirenik...

– Abiapuntuan Origenes dago, eta bere doktrina nagusia: Apokatastasia. Haren berri jakin nuenean, alegia, infernua ezin zela betiko izan eta den-denak (baita Satan ere) egunen batean Jainkoaren altzo goxora bueltatuko zirela, erabaki nuen horretaz idatzi behar nuela.

– Liburuan, umoreak kritika zorrotza gorde du, jakina. Nori edo zeri zuzendua?

– Bada, Reig Pla (Espainiako gotzain kaxka-kaxka egindako bat) bezalako jendeari. Gizontxo horrek esan berri du «España es un campo de exterminio». Ahuntz burutik dezente sanoagoak ezagutu ditut. Munilla ere, Gipuzkoako super-apezpikua, komiko mundiala da. Esaten dituztenak!

Transgresiorako dohaina

– Baten batek esan lezake 'Andromedan' sakrilegio bat dela; moral kristauaren aurkako liburua, alegia. Zer erantzungo zenioke?

– Bada, baietz, baina aipatutako bizitristedunen moral ultraeskuindar-Voxikoaren kontra.

– Eleberrian, pertsonaiek ideia ero eta aldi berean zoragarri bat burutzea lortzen dute: poseitutako kristauak exorzizatzea eta, bide batez, deabruak Argira ekartzea.

– Poseitutako jendea deabru jostalari gazteen biktima da, espirituak gorpuzdunen inbidiaz bizi baitira. Argia nolabaiteko santutasunarekin eta adimenarekin lotzen dugu, baina iluntasuna bakea eta isiltasuna ere bada; ilunean egiten dugu lo gizakiok goxoki.

– Istorioaren oinarrian dagoen galdera egingo dizut: zer gertatutako litzateke infernua betiko ez balitz eta kondenatuek, bekatz garbi, Ongiaren bidera itzultzerik balute?

– Bada, Elizak galduko lukeela bere arma nagusia, kristau xaloak betiko kondenarekin akonjantzea, eta munduan askoz neurosi gutxiago edukiko genukeela. Ez dago inongo infernuri, sinetsi niri. Infernua ezjakintasu-



na da; Zerua, jakinduria.

– Testuan bada bereziki interesgarria den konzeptu bat: Adimen Kosmikoa. Zertan datza?

– Unibertsoa izaki bat da, ez Izaki baten kreazioa; izaki bat eta puntu. Existitzen den guztia, baita Munilla eta Reig Pla ere, zorritzarrez, bizitza bakar baten parte da. Infinitua antolatzen, Adimen bat dago. Mistikoek esango

«Infernua betiko ez balitz, Elizak galdu egingo luke bere arma nagusia: kristau xaloak betiko kondenarekin izutzea»

dizute Adimen hori maitekorra dela; hala bedi, ni ez nago-eta horren segurua.

Apaizgai bat protagonista

– Zure ikuspuntutik, eleberriak Juantxo apaizgaiaren galbideratzea kontatzen du? Ala haren askapen mistikoa?

– Eleberrian kontatzen da gazte baten ibilbidea 'komodios' bizitzeraino.

– Esan egia. Apaizgaiaren eta Oonante gotzainaren arteko sexu pasartearen asmoa euskal irakurle zintzoak eskandalizatzea da, ezta?

– «Euskal irakurle zintzoak» eskandalizatzen badira bi pertsona jolas sexuarekin ari direlako, «earki gatxeuden!». Nik ez daukat eskandalizatze asmorik; sensualitatearen poza erakusteko, bai.

– Testua erlijio kristauari lotutako erreferentziak josita dago. Dokumentazio lan luzea eta sakona egin behar izan duzu?

– Orain dela lau urte 'Peru Apreta, mistikoa' espiritualtasunari buruzko saiakera argitaratu nuen.

Ordukoa bai dokumentazio lan luzea eta sakona. 'Andromedan' idazteko, gauza batzuk erreparatu ditut; Origenesen bizitza, esaterako. Esan liteke 'Andromedan' Peruren sekuela dela.

– Katolizismoan hezi zintuzten, baina gaur egun budista zara. 'Andromedan' zure bilaketa espiritualaren emaitza al da? Zerk bultzatu zintuen beste erlijio batzuk ezagutzera?

– Zen budismoan eta Taoismoan ikasletzat daukat neure burua. Nire bilaketa espiritualaren fruitu 'Peru Apreta' da, 'Andromedan' bainoago. Erljioen abiapuntuan pertsona baten esperientzia transzendentala egoten da; alegia, errealitatea ezagutu dutenen esperientzia. Abiapuntuok mundu honetako Voxikoek izorrraten dituzte zeharo, erabat desitxuratu arte. Kristautasunean, mistiko batek, Nazaretoko Jesusen bizitakoa dugu abiapuntu; ni, ordea, erlijioen sakonean ezkutatutako jakinduriaren bila ari naiz. Bizi-tzaren eta heriotzaren berri jakin nahi dut, besterik ez.